

# Prest!



BERBETAN: **ZERO H** MAGOA

ERREPORTAJEA: **GIMNASIOEN UGALKETA DEUSTUALDEAN** BARKUA: **AGATE DEUNARI KANTUZ**

202-203-205-206-207-208



## Sustatzailea



## Babesleak



## Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkarteak da edukiaren erantzule bakarra



# Babestu Prest!

urtean 25€

- Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:
- Izen-abizenak .....
- Helbidea .....
- Telefonoa .....
- E-posta .....
- Kontu zenbakia (Iban) .....

prestharpide@gmail.com  
94 447 10 42  
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

# aurkibidea

	Helene Sarasola Isazelaia - Iñigo Martinez Peña		<b>Iritzia</b>	<b>4</b>
	Lorena Ruiz Clavijo		<b>Gurera etorriak</b>	<b>5</b>
<b>e</b>	<b>erreportajea</b> Gimnasioen ugaltzea Deustualdean			<b>6</b>
	<i>Azalera erraldoiak, sabai altuak eta kristalezko horma gardenak, egunean kasik 24 orduz zabalik. Horrelakoak dira azken boladan han eta hemen zabaltzen ari diren gimnasio berriak. Esparru itxietako kirola hazten ari da aparra nola, sektoreko langileen baldintzak, kontrara, ez.</i>			
	Deustuko Ikastola		<b>Eskolak</b>	<b>10</b>
	Diktadorea Ibarrekolandan kondesarenean (1924)		<b>Behin batean</b>	<b>12</b>
	1980 – 2020 Yolanda Gonzalez gogoan		<b>Artikulua</b>	<b>14</b>
<b>b</b>	<b>berbetan</b> ZERO H MAGOArekin			<b>16</b>
	<i>Hamabost urte zituela ikusi zuen magia saio bat telebistan lehen aldiz Asier Martinez Seoanek (Deustu, 1998). Zur eta lur geratu zen pantailaren aurrean eta segituan aititeren karta-sorta hartu eta praktikatzen hasi zen. Geroztik ez ditu kartak askatu eta ikasten eta trebatzen jarraitzen du etengabe.</i>			
	Mercedes kontzesionarioa (1955)		<b>Irudiak berbetan</b>	<b>21</b>
	<b>BERTSOLARITZA</b> Aferak, hirugarrenez			<b>24</b>
	<b>JAI HERRIKOIAK</b> Agate Deunari kantuz			
	<b>PINTXODROMOA</b> Oskarbi taberna			
	<b>KULTUR TXOTX</b> Jon Mirena San Pedro eta Egoitz Ozamiz Uriarte			

# Prest!

**Argitaratzailea:**

BLB Komunikazioa Koop. Elk.

Tel: 94 447 10 42

Ramon y Cajal 42

Deustu 48014

bilbokoaldizkariak@gmail.com

**Zuzendaria:** Jone Gartzia Gerra

**Eredakzioa:** Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hektor Ortega, Nerea Cubillo, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Asier Robles, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Mikel Aiartzaguena, Nerea Etxaniz, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Maialen Gago, Jon Intxaurreaga

**Kolaboratzaileak:** Elorri Bertso-Eskola, Deustu eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea

**Argazkiak:** Ecuador Etxea

**Publizitatea:** Jone Gartzia Gerra

**Diseinua:** BOST

**Maketazioa:** Amaia Gil Basterretxea

**Inprimategia:** Antza

**Ale kopurua:** 2.800

**Lege Gordailua:** BI-571-01

**ISSN:** 1577 - 9017



## Euskaraz ala bietara?

Gazte garen aldetik, hainbat ekimenetan hartzen dugu parte, izan auzoan, unibertsitatean edo handik kanpo. Azken urteotan, indar berezia hartu dute hainbat ekintzek. Jendar-tean, orohar, oso harrera ona izaten dute, denonak dira, denok gaude horiekin kezkatuta eta denok nahi dugu zerbait egin kezka horiek ondo bidean argitzeko.


Zertaz ari naizen? Bada, feminismoaz, ekologiaz, lan pre-karietateaz, etorkinen egoera larriaz, desjabetzaz, lur plan-etaren biziraupenaz... Ni neu ere oso minberatua nago injustizia sozial orekin eta neure ahalean parte hartzen saiatzen naiz.

Hala ere, kontu batek oso kezkatua nauka. Eratzen duguna eratzen dugula, beti agertzen da galdera bat kezka sozialiekin lotuta ez bide dagoena: euskaraz ala bietara? Eta erantzuna askotan, gehienetan, bietara izaten da. Euskaldunok "errespetuz" jokatzeko ohituak gaude, ez dugu inor bazter

utzi nahi ulertzen ez duelako, baina, nago euskaldun moduan galdu egiten dugula irabazi baino. Izan ere, ziur nago jarrera kontua dagoela tartean.

Jarri dezagun adibide ulerterraz bat: Bilboko taberna batean atzerritar batek garagardo bat eskatu du *-a beer, please-*. Zerbitzariak ulertu ez badio ere, berehala hasiko da aha-lerinak (keinuak, irudiak...) egiten. Aldiz, bilbotar batek *-zerbeza bat, mesedez-* eskatzen duenean, erantzuna, gehienetan oso arrotza izaten da. Beraz, gaitasun kontua da?

Gaur egun ez dago berrogei urtetik beherakorik ulertzeko gai ez denik, eta baten bat badago, nekez erakarriko dugu euskarara, jada oso hautu zorrotza egina duelako. Beraz, zertan ari gara? Ahalduntze premia ikusten dut. Ni euskaraz naiz naizena eta euskaraz eta euskaratik interesatzen zaizkit interesatzen zaizkidanak. Kontraesankorra iruditzen zait edozein aldarrikapen egitea nire hitza isildu behar badut.



## Hutsuneen alde

Seme txikiarekin paseoan nenbilen aurrekoan, gau partean. Zeruari begira, izar iheskor bat ikusi zuen antza. Horrelako izarrei desira bat eskatu ahal zaiela entzun omen du, baina berak ez du eskaerarik egin: "Aita, izar iheskor bat ikusi dut baina ez noa ezer eskatzera, dena ondo dago. Bizitza ondo doa". Harritu ninduen bost urteko mutiltxoak esandakoak. Hainbeste eskaintza daude propagandaren eta merkataritza-gune erraldioen mundu honetan! Badirudi beti faltan dugula zerbait, eta merkantziek hutsune hori bete egingo dugula. Zentzu horretan, iragarkiek gure atsekabetasunaren kontrako mikro-terapiak lirarteke, beti zulo existentzialak betetzeko prest.

Baina burura datorkit J. Lacan psikoanalistaren definizio kurioso bat. Berarentzako angustia edo bizi-larritasuna ematen da, bizitzan faltarik, hutsunerik ez dagoenean. *Falta falta de-anean*. Psikologikoki, beraz, estutasuna gauzek sortzen dute,

ez hutsuneek, justu entzun ohi dugunaren kontrakoa. Estutzen gara zerbait agertzen denean hutsunearen tokian, beldu-rrerko filmetan espazio hutsean mamuak agertzen direnean moduan. Galdetzera narama horrek: bereziki estugarria da, orduan, gizarte kontsumista? Nik, behintzat, itolarri hori sentitzen dut hipermerkatuen pasabide amaiezinetan galduta.

Beraz *bizitza ondo doa* -gehitzen diot orain semeak esandakoari- hutsunea, arnagunea, faltan duguna sentitzen dugun bitartean. Berak ez zion izarrari ezer eskatu, eta paseoan jarraitu genuen. Egia esan, maitasuna eta hutsunea oso lotuta daude. Faltan zaitut, faltan nauzu. Ez dago hori beteko duen munduko merkantziarik, ez dago hori gutzit asetzerik. Batzuetan uste dut kontsumoaren mundua maitasunaren aurka dagoela. Nik hutsune hori mimatzea eta semearekin ibiltzea gustuko dut, gaez eta egunez, hutsuneak partekatuz.



## Lorena Ruiz Clavijo

**Jatorria:** Logroño  
**Bizitokia:** Deustu



**“Bizi zaren gizartea ulertzeko beharrezkoa da bertoko hizkuntza ezagutzea”**

### **Noiz etorri zinen Euskal Herrira?**

Logroñokoa naizenez askotan etorri naiz familiarekin eta lagunekin txangoan. Udan etorri ohi gara, mendira, poteoan, kontzertuetara, hondartzara... plan ezin hobea da guretzako. Irailaren 1ean heldu nintzen Deustura luzerako geratzeko asmoarekin. Euskal Herrira etorri izan naizenean giro eta jende oso atseginarekin elkartu naiz, horregatik aukeratu nuen helmuga bezala, hemen lasai eta gustora sentitu naitzelako beti. Hemen haziak landatzea da nire asmoa, eta ia zerbait hazten den probatu.

### **Zergatik aukeratu zenuen Bilbo helmuga bezala?**

Graduko azken bi urteak Madrilen egin nituen eta nagusiki bertan egoteaz nekatuta nengoelako erabaki nuen bizitokia aldatzea. Denbora jakin baterako leku aproposa da Madril, baina iparraldera bueltatu nahi nuen. Beti izan dut buruan Bilbora edo Euskal Herrira bizitzera etortzea eta momentu hau aproposena iruditzen zitzaidan.

### **Orain zer egiten ari zara?**

Farmazia gradua amaitu eta masterra egiteko bi eskaera egin nituen, bat Madrileko Unibertsitatean eta bestea EHUan. Hemen onartu nindutenean Madrilekoa berehala ezeztatu eta pisua bilatzera etorri nintzen. Etxeren bat edo beste begiratu ostean, Deustun topatu nuen.

### **Zer dauka Bilbok Logroñok ez duena?**

Gauza asko. Orokorrean Bilbok duen eskaintza kulturalak ez du zerikusirik Logroñoko eskaintzarekin: kontzertuak, hitzaldiak, aurkezpenak... politikakeri eta juerga asko dago ere. Uste dut hemengo jendeak ez duela baloratzen baina Bilbo nire ustez berdea da, zoragarria da mendia begi-kolpean izatea. Horrez gain, izugarria da hondartza alboan egotea. Orokorrean Bilboko bizitza kalitatea ezinhobea da.

### **Luzerako geratzeko asmoa daukazu?**

Bai, hori da nire ideia. Oso pozik nago nire bizitzak hartu duen norabidearekin.

### **Euskara ikasten ari zara?**

Zeri esaten diozu ikasi? Saiaitzen ari naiz, asteartero Ecuador Etxeko euskara klaseetara joaten naiz, ordu t'erdia besterik ez. Irakaslea auzoko lagun bat da, uste dut ezagutzen duzula (barreak).

### **Beharrezkoa da euskara jakitea hemen bizitzeko?**

Dudarik gabe. Bizi zaren gizartea ulertzeko beharrezkoa da honen hizkuntza ezagutzea. Lan arlo eta gunearen arabera gehiago edo gutxiago erabili arren, ezin dugu ahaztu hemengo hizkuntza euskara dela.

### **Noiz erabili ohi duzu?**

Asko entzuten dut nire inguruan eta gauza batzuk ulertzen hasi naiz dagoeneko. Soinean daramadan liburuxkan hitz solteak apuntatu ohi ditut eta horrela ikasten dut. PAREn ere asko lagundu naute, bileretan gauzak belarrira esaten dizkirate, kontu guztiak harropa ditzadan. Luzeran serioago jarri nahiko nuke, tituluren bat atera, edo, baina momentuz nahikoa daukat *ukan* eta *izan* aditzak ezberdintzearekin!

**Testua**  
Nerea Cubillo

# GIMNASIOEN UGALKETA DEUSTUN

*Azalera erraldoiak, sabai altuak eta kristalezko horma gardenak, egunean kasik 24 orduz zabalik. Horrelakoak dira azken boladan han eta hemen zabaltzen ari diren gimnasio berriak. Esparru itxietako kirola hazten ari da aparra nola, sektoreko langileen baldintzak, kontrara, ez.*

Testua: Jone Gartzia eta Lur Mallea

Iñigo Torres Fernandez San Inazioko auzo-kideak barru-barrutik du fenomeno honen berri. Entrenatzaile, monitore eta prestatzaile fisiko aritu da 16 urte zituenetik, eskola-kirolean, Erandioko kiroldegian, Bilbokoan edota Gortizekoan. Egun, Areetako AltaFit gimnasioan dabil instalazioaren koordinatzaile. Espainiako kate handi bat da hau, 70 gimnasio baino gehiago dituena. Laster, gainera, Ibarrekolandan berri bat irekitzekotan daude.



Iñigo Torres Fernandez

Ondo ezagutzen du kirolaren inguruko enpresa-mundua Torresek. Gimnasio handi eta merkeen “moda” Europatik datorrela azaldu digu. Izan ere, krisia hasi aurreko urteetan ohikoak ziren auzoetan gimnasio txikiak, non urteko harpidetza eta ikastaroak aparte ordaintzen ziren. Publiko nahiko espezifikoak izaten zuten, kulturistak, esaterako, eta hilean batez beste 50 eta 70 euro artean ordaindu ohi ziren. Egun, gero eta arraroagoa da horrelakorik ikustea. Kate handiek azalera handiko kiroldegiak erakitzen dituzte, eta, hilean 30 euro inguruko kuotaren truke, nahi beste klasetara joateko aukera ematen dute, instalazioa nahi bestetan erabiltzeaz gain.

Bilboko gimnasio publikoek lehengo ereduari eusten diote oraindik. Esaterako, BilbaoKirolak urteko abonua 136,95 eurokoa da 29 urtetik gorakoentzako. Ikastaroak, gimnasioa eta zenbait gelaren erabilera aparte ordaindu beharrekoak dira. Horregatik dio Torresek merkeagoa dela gimnasio pribatu batean izena ematea publikoan baino.

“Low-cost” eredu honek langileen baldintzetan eragin zuzena duela nabarmendu du. Bere kasuan, erdira murriztu diote soldata krisia lehertu zenetik. Eusko Jaurlaritzak ez du oraindik atera Euskadiko jarduera fisiko eta kirolaren legea, eta sektoreko langile asko baldintza benetan kaxkarretan ari direla azaldu digu Iñigok. Kontraturik gabe

daude asko eta beltzean jasotzen dute soldataren zati handia. “Kristoren titulazioak eskatzen dizkigute lan egiteko, baina gero baldintzak ez dira batere onak”, diosku San Inazio kirolariak. Hori dela eta, joan den urteko maiatzean greba hasi zuten Bizkaiko kirol lokal eta zelaietako langileek, sektoreko hitzarmena hobetzeko ahaleginetan. Espainiako kirolariak hitzarmena ere epaitegietan dago.

Erabiltzaileei dagokienez, kopuruz izugarri hasi direla aipatu digu Torresek. “Gimnasio guztiak topera daude, askotan ez da jende gehiago sartzen”, argitu du. Edonola ere, hazten jarraituko duen fenomenoak bere ustez, oraindik ez omen baikara heldu kirolaren esplotazio maila gorenera. “Gero eta gehiago haziko da negozioa, eta higiezinaren sektorearekin gertatu bezala, burbuila honen ere leher egingo du”, diosku.

Torresek ez du uste ausazko fenomenoak denik azalera handiko gimnasioen hedatzearena. Horrela azaldu digu: “Modak norbaiti interesatzen zaizkiolako agertzen dira, eta hau negozio handia da”. Kirol eredu berriak egungo gizartearekin bat egiten duela deritza, taldearekiko konpromisotik aldendu eta

gero eta indibidualagoa da orain. “Taldea batean aritzeak astean zehar entrenamenduetara joatea eskatzen du, gero partidak jokatzea... Jendeak ez du konpromisorik hartu nahi, itxura eta osasuna zaindu baino ez”.

Horrela azaldu daiteke, adibidez, Crossfitaren azken urteetako gorakada. Urtebetean gure auzoetan hiru box (entrenamenduetarako egiteko lekua) zabaldu dituzte, guztiak eredu berari jarraiki: esparru handi eta ikusgarriak, goiz-goizetik iluntzera arte irekiak. Infigoren ustetan hiru faktore nagusi daude ugaritze bidez honen atzean. Alde batetik, boxetan komunitate sentimendua sustatzen da, banakako lana izanagatik talde gisara funtzionatzen baitute areto askok. Bestetik, entrenamenduek ez dute jarraipen zorrotzik eskatzen, eta era horretan ordutegi aldakorak eta estuak dituzten kirolariak errazago dute bertaratzea. Azkenik, publizitatean eta sare sozialetan egiten duten sustapen lanak zeresan handia duela uste du prestatzaileak.

Iritzi berekoa da Miren Beraza, aspalditik Deustuko Lions Crossteam crostrainingean dabilena. Gimnasioan eta spinningean betidanik aritu izan da gaztea, eta kirol berriak

**“Modak norbaiti interesatzen zaio agertzen dira eta hau negozio handia da”**



atentziora ematen zionez, probatzea erabaki zuen orain bi urte eta erdi. Crossfit markaren barruan ez badago ere, kirola bera da, intentsitate handiko entrenamendu funtzionala, alegia. Crosstrainingaren azken gorakadaren arrazoiengatik galdetuta, hainbat kontu azpimarratu ditu: gimnasioko giro hurbila, entrenamendu dinamiko eta moldagarriak (ordutegi eta egoera pertsonalaren arabera), eta entrenamendu pertsonal eta

gidatuak: “Egia da jendeak esaten duena, harrapatzen zaitu”.

Hala ere, jakitun da CrossFitaren gorakadaren atzean “negozio handia” dagoela. Izan ere, erregistratutako marka da CrossFit, eta izena erabili ahal izateko lizentzia ordaindu behar dute kirol zentroek. 2010etik Reebokekin lankidetzat hitzarmena sinatu zuen CrossFit Inc. enpresak. Honen ondorioz, Reeboketik CrossFit Games mundu mailako txapelketak babesten ditu, eta markaren izena erabil dezake bere arropan. Adidasen filiala etengabeko gorakadan dagoen kirolaren babesle ofiziala da, eta saltzen dituen materiala, jantziak eta osagarriak ez dira batera merkeak, Berazak argitu digunaren arabera. “Mundu horretan apur bat sartzen bazara, berehala konturatzen zara zer dagoen atzean: kirolean ere, erosi eta erosi baino ez dago”.



**WALL CrossFit**eko Salva Beltran.



Martin Ibarra eta Sergio Iglesias.


CrossFitaren arrakastaren beste erakusle bat auzoan bertan daukagu. Deustualdean hiru lokal ireki dituzte marka honen pean azken urtean: lehena Ibarrekolandan, hurrena La Salle ikastetxean eta Morgan kalean azkena. Bertan ireki zuen Salva Beltranez WAL CrossFit boxa joan den apirilaren 1ean. Nahiz eta negozioa zabaltzeko ideia izan zuenean ez zegoen gisako gimnasiorik inguruan, baina “beste batzuek ere izan zuten ideia bera”, kontatu digu. Bilbo Handian CrossFitaren eskaintza izugarri hasi dela dio, eta berak ere uste du hazten jarraituko duela, “fitnesean joera berria” baita.

Bere ustez, Gimnasio klasikoaren eskaintza “aspergarria” da, eta horregatik gero eta jende gehiagok erabakitzen du entrenamendu

**EGIN  
SALTO  
EUSKARAREN  
MUNDURA!**



**AZKUE**  
FUNDSIA



**LANTEGI  
BERRIA**

**daukagu prest zuretzat**  
**Zatoz bisitan ikastetxearekin!**

**Galdetu hemen:**  
94 402 80 81 • [info@euskararenetxea.eus](mailto:info@euskararenetxea.eus)  
• Agotiz plaza 1 48015 Bilbao, Bizkaia



funtzionalera igarotzea, nahiz eta ordaindu beharreko kuota nabarmen handiagoa izan. Aipatutako gimnasio handietan hilean 30 eurotik behera kobratzen duten bitartean, CrossFit markaren barruko boxetan kuota ez da 65 eurotik sekula jaisten. "Low-cost gimnasioek bataz beste 3.000 bazkide behar dituzte errentagarri izateko, baina asko ez dira ohiko erabiltzaileak. CrossFit-a garestiagoa da, bana-banako arreta eskaintzen duelako, eta taldeak askoz txikiagoak direlako".

### Entrenamendu pertsonalerako gunea

Ez gimnasio tradizionala ez CrossFiterako gunea. Martin Ibarrek eta Sergio Iglesiasak zerbait desberdina eskainiko dute, ondo bidean martxotik aurrera Luis Power kalean zabalduko duten zentroan: entrenamendu pertsonala, alegia. Kanpotik ikusita gimnasio itxura izan badezake ere, "ez du zerikusirik gimnasio batekin", dio Sergiok. "Tratu zuzena" eskainiko diote erabiltzaileari, "hurbilekoa", eta "beren-beregi egokitutako zerbitzua". Beharizan eta helburuen araberako entrenamendu pertsonala edota, gehienez, hiru laguneko taldekakoa. Arlo psikologikoa baztertu gabe. Izan ere, Martinek azpimarratzen duenez, erabiltzaileak "motibatzea funtsezkoa da". Bestela oso ohikoa izaten da, "ariketaren bat ezin egin, etsitu eta gimnasioa uztea. Ez duzulako pertsona bat zure ondoan irakasten, animatzen... eta guk hori egiten dugu, helburua lortzen lagundu arre-ta pertsonalaren bitartez".

Gazteak izan arren, biek ala biek esperientzia handia dute kirol munduan eta, euren lehen proiektua abian jartzeko orduan, Indautxu eta Deusturen artean, bigarrenaren alde egin dute. Jakin badakite gimna-

sio asko dagoela inguruan, baina ez dira lehiaren beldur. "Gurea bezalako zerbitzurik Deustun ez dagoelako, eta Bilbon gutxi".

### Gimnasio autokudeatuak

Nolanahi ere, auzoan badira "merkatu interresetatik kanpoko kirola" bultzatzen dituzten espazioak. Erriberako BiziNahi Auzo Gunean, esaterako, auzokideek muntatutako gimnasioa daukate beheko solairuan. Yoga eta zumba egiteko zenbait talde elkartzen dira, eta norbanako asko makinak erabiltzera gerturatzen dira.

San Inazio-Ibarrekolandako Errondoko Auzo Etxean ere gimnasio autokudeatua daukate. Boxeo taldea ere badago, eta azken boladan lagun asko elkartu ohi dira entrenatzeko. Klaseak euren kabuz prestatzen dituzte, txandaka, eta materiala Auzo Etxeko barratik edo kamisetak saltzen lortutako diruarekin ordaintzen dute pixkanaka. Kirola era komunitarioan egiten dute, "perekidetasunean eta kideen arteko errespetuan oinarrituta". Azken aldian kide berri ugari batu zaizkie proiektura, "ahoz-ahoko informazioari esker".

**"CrossFitak hazten jarraituko du, fitnessen joera berria baita"**



Saniko Boxeo Taldeko aurkezpena.



# DEUSTO 3 BIZIRIK

Comercios, servicios y hostelería de Deusto

**HEMEN BIZI, HEMEN EROSI... DENOK IRABAZI!!**

**Denon artean, zaindu dezagun gure auzoa**





# “EXCUSE MOI, EST-CE QUE VOUS POURRIEZ RÉPONDRE À QUELQUES QUESTIONS?”

*Abenduaren 16an Deustuko Ikastolako 4.DBHko ikasleok Baionara joan ginen. Aurreko ikasturteetan frantsesa ikasten duten ikasleak baino ez dira joan, baina aurten ikasle guztiekin joatea erabaki dugu.*

**Testua eta argazkiak**  
Deustuko Ikastola

Abenduaren 16an Deustuko Ikastolako 4.DBHko ikasleok Baionara joan ginen. Aurreko ikasturteetan frantsesa ikasten duten ikasleak baino ez dira joan, baina aurten ikasle guztiekin joatea erabaki dugu.

Frantseseko ikasleak Txokolate museo-  
ra joan ziren goizean eta gainontzeko  
ikasleei beste erronka bat jarri genien:  
frantsesik jakin gabe, taldeka, Baionako  
erdigunean jendeari inkestak egin be-  
har zizkieten ea zenbat eta zein hizkunt-  
za hitz egiten zituzten galdezka.

Horretarako, jendearen aurrean aurkez-  
teko, frantsesez ikasi behar izan zituz-  
ten pare bat esaldi halabeharrez: “Ex-  
cuse moi. Nous sommes des étudiants

d’une école de Bilbao et nous voudrions  
savoir quelle langues vous parlez. Est-  
ce que vous pourriez répondre à quel-  
ques questions?”. Baionarako autobus  
bidaian erakutsi genien zer esan eta  
nola ahoskatu, baita bertako jendearen-  
gana adeitasunez nola hurbildu ere, la  
politesse.

Galdetegiaren lehenengo galdera hau  
izan zen: “Euskaraz badakizu?”. Ika-  
leei aurretik aipatu genien euskara ez  
dela hizkuntza ofiziala Frantzian eta  
euskaraz ikasi ahal izateko ikastoletara  
joan behar zirela, lehengo garaietan  
Deustuko ikastolako ikasleak bezala.  
Gure ikasle askok ezagutzen dute pro-  
blematika urtero ospatzen diren Herri  
Urratsen bitartez.



Alejandro Montero, Aner Varela eta Xabier Larrinaga.

Ezetz esanez gero: “¿Habla usted español? ¿Dónde lo aprendió?”, eta antzeko galderak.

Ezetz esanez gero: “Can you speak English? Where did you learn it? Can you speak any other languages?”.


Elkarrizketa amaitu eta gero, taldeak argazkia egin behar zuen elkarrizketatuekin, eta grabatu zituzten elkarrizketak ebaluatuak izan ziren azkenik. Ikasleek oso ondo pasatu zuten, jende atsegina aurkitu zuten, adin eta estilo guztietakoa eta gero beste taldeekin aurkitu zirenean bazeuzkaten elkarri zer kontatu.

Aldi berean, euskararen erabilera dela eta, esperientziak zer pentsatu eman zien: euskaldun gehiago aurkitzea espero zuten. “Itxurakeria handia” aipatu zuten ikasle batek denda batean lauburuak ikusita baina dendariak euskaraz jakin ez. Aukera hori erabili genuen gure ikasleei hurrengo galdera egiteko. Demagun, zuek bezala gaur, Baionako ikasle talde batek Bilboko erdialdean inkesta bera egiten duela, astelehen goiz batean, ikaslerik ez kaleetan. Emaizak ez lirateke antzekoak izango?

Eguerdian frantseseko ikasleekin elkar-tu eta turismo bulegotik hasita, ginkana bat antolatu genuen hiriko leku ospetsuenak ezagutzeko. Point de vue festibalaren grafiti erakusketa ikusgarriaz gozatzeko aukera izan genuen baita ere.

Primeran atera zen dena. Ikasleak zoragarri portatu ziren, atazak bikain beteta. Hiria asko gustatu zitzairen; batzuentzat lehenengo aldia zen bertan. Estimatu zuten autorik ez egotea eta aparkalekuek erdigunera autobus txikia dohainik izatea, baita arkitekturan ere, etxe zaharberriak, batasun harmonikoa...

Eguraldia ere lagun izan genuen. Ondo-rioz, txangoa gomendagarria, oso, baina ez gaitezen joan Bilboko eskola guztiak egun berean, bestela, akabo.





# DIKTADOREA IBARREKOLANDAN KONDESARENEAN (1924)

*Ibarrekolandan oraindik ere esaten diote Zubiria Sarrrikoko goialdeari, bertan eduki zutelako jauregia (Goi Eder) Zubiriako konde-kondesak. Tituluak gorabehera, haiek ez ziren aristokraziako kumeak, burdingintzaren eta, batez ere, langileen zapalkuntzaren abaroan berriki aberastutako burgesak baino. Eta Espainiako estatua eduki zuten haien aberastasunaren berme eta helduleku. 1924an Primo de Rivera diktadorea Goi-Ederren hartu zuten.*

**Testua:**

Hektor Ortega

Alfonso XIII.aren erregimena gainbehera zertorren. Berrezarkutzarena sistema ustela zen jaiotzatik, eta gizartearen aldaketek gero eta ageriago utzi zuten hala bere gezurra nola bere ezina. Langile mugimendua indartu ahala haren baitako joera iraultzaileek itzal handiagoa erdietsi zuten. Estaturik gabeko nazioak -batez ere Katalunia, baina baita Euskal Herria ere- irartzartzen hasiak ziren eta Espainiak gordin jokatu zuen. Bitartean, ostera, potentzia koloniala izateko ameskeria zitalari eutsi nahi zion eta beren-beregi Rif aldean borroka latzetan murgildu zen

haien buruaren jabe izan nahi zuten berebereen aurka, sarraski galantak eraginez.

Kinka hartan, 1923ko irailean Miguel Primo de Rivera jeneralak, Kataluniako kapitain jenerala zela, estatu kolpea jo zuen industria-jabe handien eta, oro har, sektore monarkiko kontserbadoreen babesaz. Ez zuen monarkia ukitu, baina artean indarrean zegoen alderdi-sistemaren orde, diktadura ezarri zuen, alderdi bakarrarekin -Unión Patriótica- eta erakunde parapolizialarekin -Somaten-. Ez zuen oztopo handirik aurkitu. Bere lehenengo dekretuetako batek katalana eta euskararen erabilera publikoa galarazi zuen. Euzkadi egunkariak, esate baterako, euskarazko atala kendu behar izan zuen. Bai, gure hizkuntzaren aurkako erasoak ez zituen Francok asmatu.

1924ko maiatzaren 1tik 4ra Bizkaian egon zen diktadorea. Gure herrialdean babes handiak zeuzkan, hala industria-jabe ahaltsuen aldetik nola, oro har, sektore kontserbadore-tradizionalisten eskutik. Egun horietan, besteak beste, Ezkerraldeko lantegiak bisitatu zituen, Bilboko Maiatzaren 2ko prozesio zibikoaren buru ibili zen eta herritarren berotasuna sentitu zuen, diktadore guztiek ohi duten bezala.

## Deustuan

Santanderko Racingekin lehia polita eduki Deustutik birritan igaro zen Primo de Rivera diktadorea. Hilaren 3an, Abran Alfonso XIII "traslatlantikoan" (gerora Habana izena hartu eta 1937an umeak Ingalaterrara eta Frantziara



Kondesa bandera emateko ekitaldian.



Diktadorea eta kondesa bandera emateko ekitaldian.

eraman zituen berbera) bazkaldu eta gero, Ses-taon Ariñ-Mendi atoiontzira igo eta Ibaizabaletik gora Euskalduna ontziolara itzuli zen. La Gaceta del Norteren arabera, hura zen poza Deustu pa-retik pasatzean. Herri guztietan egundoko harre-ra egin ei zioten, baina "donde hubo verdadero entusiasmo fue en Deusto. Muchas casas de la vecina anteiglesia estaban engalanadas. En una de ellas había numerosos mantones de Manila que daban a la finca aspecto puramente andaluz. En otra se leía en grandes caracteres: ¡Viva Primo de Rivera! El público no cesaba de vitorear y de aplaudir al paso de nuestro remolcador".

Orduko hartan gure uretatik igaro bazen, biha-ramunean, maiatzak 4, Deustuko lurretara eto-rrri zen diktadorea. Goizean Bilbon egon zen, Garellano erregimentuari Espainiako bandera emateko ekitaldian. Gomutan eduki artean Espainiako Armada -besteak beste, euskal mutilez hornituta- gerra inperialista garatzen ari zela Rif aldean hango bizilagunen aurka. Bandera, hain zuzen, Zubiriako kondesak -Carmen Somonte Basabek- eman zion. Jarraian, Deustura etorri zen, konde-kondesen etxean bazkaltzera. Ez

zuen txarto aukeratu, herriko jauntxoak baitziren, Bizkaiko kazike nagusietakoak, Tomas Zubiria Ibarra konde jauna eta enparauak. Lehenago, ostera, Deustuko udaletxean egin zuen geldial-dia. Bertan udal bandak Espainiako ereserkia jo zuen, Udalak hamaiketako eskaini zion, eta, jakina, anxioaren gaiaz berba egitea beste erre-mediorik ez zuen izan. Anexioa egin, egingo zu-tela segurtatu zuen diktadoreak, baina Deustuak bere nortasuna galdu barik. Lehenengo zatia hiru hilabete geroago betz: zuen, jakina denez, biga-rrena, ostera...

Jarraian, Ibarrekolandara etorri zen, Goi Ederre-ra. Primo de Riverarekin batera, erakundeetako ordezkariak -Federico Moyua Bilboko alkatea izan ezik, anxioaren kontuagatik- eta oligarkiako kide aukeratu batzuk eseri ziren mahaiaren buel-tan, Zubiriatar sendi zabalarekin batera. Baina dena ez zen politika, industria eta gerra izan. Bazkalostean, ondoan zegoen gor-mutu eta itsuen ikastetxeko ume batzuk ekarri zizkioten. Eta hara non, La Tarde egunkariko kronikaren arabera, "los sordomudos dieron varios vivas a Primo de Rivera". Entusiasmoaren indarra zer den.



**Kalderapeko**  
euskal kultur gunea

[www.kalderapeko.com](http://www.kalderapeko.com)

txakur kalea, 1. 48005  
bilbo • euskal herria  
tfnoa: 94 416 40 99



1980 – 2020

## YOLANDA GONZALEZ GOGOAN

*Otsailaren 1ean 40 urte beteko dira Batallón Vasco Español talde paramilitar espainiarrak Yolanda González 19 urteko gazte deustuarra bahitu eta erail zuela, euskal herritarra izateagatik. Deustuibarrako bere auzokideek ez dute Yolanda inoiz ahaztu, eta are gutxiago, Estatuan eskuin muturrekoak izandako gorakadak markatzen duen 40. urteurrenean.*

Urteurrena borobila izanda, Deustuibarrako Auzo Elkartek, Bekoerrik eta Bizinahik egitarau zabala prestatu dute 1980-2020 Yolanda Gonzalez gogoan lelopean, urtarrilaren 31erako, ostirala. Arratsaldeko 6etan omenaldia egingo diote bere izena daraman plazatxoan. Ekitaldiarekin batera, Yolanda Gonzalez gogoan mural berria inauguratuko dute. Ostean, 18:30etan izen bereko erakusketa erakusketa inauguratuko dute Bizinahia auzo etxean. Horrekin batera Yolanda en el país de los estudiantes bideo-emanaldia eskainiko dute. Bukatzean, askari bat antolatuko dute Bizinahin.

**Testua:** Borja  
Sarrionandia-Ibarra

Erakusketa otsaila osoan egongo da ikusgai eta hamaika panelez osatuta dago. Yolanda hilketa, Deustuko herriaren erreakzio ikusgarria, hiltzaileak nortzuk izan ziren, Espainiako Auzitegi Nazionaleko ikerketa murriztua, epaiketa, kriminalek kartzelan izandako aldeko tratua, Hellin hiltzailearen ihesaldia Paraguaira, Espainiara estradizioa eta Guardia Zibilak eta Poliziak egindako kontratazio eskandalagarria kontatzen dira bertan. Azken panelak 2016an, lan neketsu eta iraunkor baten ondorioz, Deustuibarrako Auzo Elkartek Yolanda merezi duen Plaza auzoan lortu izana jasotzen du.



Garaian garaiko prentsez (Berria, Deia, Egunkaria, El Correo, Egin, El País, Gara, Interviú, La Gaceta del Norte eta La Hoja del Lunes) eta Lazkaoko Beneditarren liburutegian artxibatutako Deustun argitaratutako esku-orriez baliatu dira panelak osatzeko.

### Deustu hunkitu zuen hilketa

1980ko otsailaren 1eko gauean Batallón Vasco Español-ek Yolanda Gonzalez bahitu eta erail zuen Madrilén. Egun berean talde berberak Jesus Mari Zubikarai asasinatu zuen Eibarren. Urte baten buruan, BVE erakunde paramilitar espainiarrak egin zituen 11. eta 12. hilketak izan ziren, hurrenez hurren. Euskal herritarrek izateagatik hil zituela azpimarratu zuen BVEk komunikabideei igorritako hilketen aldarrikapenetan. Aipatutako gertakariek euskal gizarte osoa hunkitu zuten.



Yolandaren erailketa salatzeke greba erabatekoa izan zen Deustun. Iluntzean 5000 herritar inguruk parte hartu zuten Deustuibarrako San Pablo elizan bere alde antolatutako hiletan. Fernando Jiménez López gobernadore zibilak (UCD) Yolandaren gorpua bere etxean zaintzea debekatu zuen. Hori gutxi balitz, bere agindupean zegoen Polizia espainiarrak ehorzketa-segizioa geldiarazi zuen Deustuibarran, eta, ostean, indarkeria parapolizial eta faxistaren aurka agertu ziren milaka per-

tsionen aurka bortizki oldartu zen Done Petri plazan.

Batallón Vasco Español erakunde terroristaren 41. komandoak bere gain hartu zuen hilketa. Autore materialak Emilio Hellin Moro eta Ignacio Abad Velazquez izan ziren, biak ere Fuerza Nueva alderdi eskuin muturreko kideak. Zuzeneko laguntzaileen artean, gutxienez, polizia nazional eta guardia zibil bana egon ziren, horiek ere Fuerza Nuevako kideak.



## SAN INAZIO ESKOLA

Gure auzoko eskola publikoa



- \* **D EREDUA / modelo D**
- \* **ESPASIO HEZITZAILE BERRIAK/ Nuevos espacios educativos**
- \* **BIZIKASI" PROIEKTUA/proyecto "Bizikasi"**
- \* **2 URTETIK AUERRERA/ a partir de 2 años**
- \* **HHTik INGELESA /Inglés desde E.I.**
- \* **ESKOLAN EGINDAKO BAZKARIA** Cocina propia
- \* **GOIZEKO/ARRATSALDEKO ZAINTZA**  
Servicio "conciliación familiar" mañana/tarde
- \* **ESKOLAZ KANPOKO EKINTZA UGARI**  
Amplia oferta de actividades extraescolares

MATRIKULAZIO EPEA ZABALIKI  
URTARRILAK 27 – OTSAILAK 7  
PLAZO DE MATRICULA ABIERTO  
27 ENERO – 7 FEBRERO

ESKOLA EZAGUTZEKO EGUNA  
OTSAILAK 3  
3 DE FEBRERO (16:30)  
JORNADA PUERTAS ABIERTAS

C/ Cantabria, 2.  
48015 Bilbao  
Tel. 944 758 364.

[www.saninazioikastetxea.com](http://www.saninazioikastetxea.com)  
San Inazio







# berbetan

ZERO H-rekin

Magoa

## “Eman diodana baino askoz

*Hamabost urte zituela ikusi zuen magia saio bat telebistan lehen aldiz Asier Martinez Seoanek (Deustu, 1998). Zur eta lur geratu zen pantailaren aurrean eta segituan aititeren karta-sorta hartu eta praktikatzen hasi zen. Geroztik ez ditu kartak askatu eta ikasten eta trebatzen jarraitzen du etengabe.*





**Testua:** Jone Gartzia Gerra  
**Argazkiak:** Ecuador Etxea



# gehiago eman dit magiak”

## **Nola hasi zinen magiaren munduan?**

Hamabost urte nituela, Gabonetan, telebista ikusten ari nintzen eta bat-batean mago bat agertu zen. Zeharo harrirituta geratu nintzen eta programa amaitu bezain laster, aititeren karta-sorta hartu eta praktikatzan hasi nintzen. Hasieran trukoak asmatzen nituen eta lehengusuei egiten nizkien. Gero magia ikasteko liburuak aurkitu nituen, kongresuak... Pixkanaka mundu honetan sartu nintzen.

## **Non eta nola ikasi duzu?**

Nire kabuz ikasi dut, orduak eta orduak ematen. Emanaldietan jende asko ezagutu dut eta esperientzia guztietatik asko ikasi dut.

## **Ba al dago magia eskolarik inguruan?**

Bai, Bilbon Fábrica de Magos izeneko eskola dago, baina nik nahiago dut auto-didakta izan. Era horretan askeagoa sentitzen naiz artea sortzeko eta nire estilo propioa eraikitzeko.

## **Zer-nolako erreakzioa izaten du jendeak magoa zarela diozunean?**

Normalean, ez badidate galdetzen ez dut esaten magoa naizenik, apur bat harroa litzatekeelako. Kontatzen dudanean, beti eskatzen didate magia truko bat egiteko.

## **Zelako irudia dugu magoen gainean?**

Orokorrean, arte diziplina guztiak gutxie-

tsita daudela uste dut. Hala ere, magia gero eta ezagunagoa da, telebistan eta irratian asko ematen dutelako eta horrek aitortza ematen dio.

## **Zein da zure espezialitatea?**

Gertuko magia egiten dut, publikoa metro bat edo bira dagoelako. Zirrargarriagoa da, horregatik gustatzen zait. Aretoetan ere egiten ditut saioak, baina hurbilekoa maiteago dut.

## **Magia poetikoa ere egiten duzu. Zertan datza?**

Egoera bat sortzen dut magia egin bitartean istorio bat kontatzeko. Musika ere baliatzen dut horretarako. Hilabeteak hartzen ditut trukoak prestatzen: egun batean poesia idatzi, beste batean musika aukeratu, trukoak pentsatu...

## **Zer da ilusionismoa?**

Nik magia eta ilusionismoa bereizi egiten ditut. Rene Lavand (Argentina, 1928) mago ospetsuak esaten zuen magia artistaren lilura dela, eta horren bitartez publikoarekin komunikatzen da. Kartekin eta txanponekin trukoak egitea ilusionismoa da nire ustez. Antzerkigile batek edo musikari batek magia sortu dezake, eta egun magia deitzen den hori litzateke ilusionismoa.

## **Zer behar du truko on batek?**

Lehenengo eta behin, zentzua izan behar du: magoak jakin behar du zergatik eta

**“Gertuko magia egiten dut, publikoa metro bat edo bira dagoelako”**

## ▷ ▷ SAKONEAN

## “Orain prestatzen ari naizen espektakuluak asko markatuko nauela uste dut”

### Mugarririk zure mago ibilbidean?

Kongresu batera joan nintzen lehen aldia. Bertan toki askotako magoak ezagutu nituen eta haiekin egoteko aukera izan nuen. Egia bihurtutako ametsa izan zen eta motibazio handia eman zidan. Beste mugarri bat iaz Bilborroren egindako ikuskizuna izan zen, nire ametsetariko bat antzoki batean aritzea baitzen eta pentsatzen nuen denbora gehiago beharko nuela horretarako. Orain prestatzen ari naizen espektakuluak ere asko markatuko nauela uste dut, baina oraindik ez da gertatu.

### Inoiz erabili duzu ilusionismoa arazoren bat konpontzeko edo gaiztakeriaren bat egiteko?

Seguru baietz baina orain ez dut gogoratzen... Agian ez da gauza handia, baina herrian lagunekin kartetan jolasten nagoela bai erabili izan dut trukoren bat kartak aukeratzeko.

### Zer ekarri dizu magiak?

Eman diodana baino askoz gehiago: bidaiak, lagunak... Mago askok esaten dute, ezingo diotela inoiz eman magjari jaso duten guztia. Nik berdin pentsatzen dut.



zein testuinguruan egiten duen. Bestalde, harrigarria izan behar du, txundigarria, eta emozio bat sortu behar du. Azkenik, ezinezkoa eman behar du, eta ikuslea errealitatetik apur bat aldendu, gauzak beste ikuspuntu batetik ikusten laguntzeko.

### Eta mago on batek?

Ondo jakin behar du zergatik egiten duen magia eta hori ikusleei transmititzen jakin behar du. Sentimenduak ere adierazi behari ditu, barruan duena atera, eta ezinezkoa den zerbait erakutsi.

### Zer da Zero H?

Nire izen artistikoa da. Ez dut azaltzen zer esan nahi duen, nahiko pertsonala delako, baina hasiera esan nahi du: zerotik hasia. Magiaren munduan hastea asko kostatu zitzaidan eta izenak nondik natorren eta hau zergatik egiten dudan gogoratzen laguntzen dit.

### Nolako presentzia dauka magiak zure egunerokotasunean?

Magiari esker gauzak etengabe zalantzan jartzen ikasi dut, ezer jakintzat ez ematen eta arazoak hainbat ikuspuntutik begiratzen.

### Zer transmititu nahi duzu magiarekin?

Askotan ez dakizu zer egun pasa duen aurrean daukazun pertsonak edo zer-nolako

bizipenak izan dituen, eta saioetan errealitate deskonektatzen laguntzen diet erakusteko arazoak beste era batera planteatu daitezkeela eta, akaso, esperantza apur bat ematen diet .

### **Nolako gaiak lantzen dituzu saioetan?**

Orain denboraren inguruko saio bat presatzen ari naiz, oso presente dudalako nire egunerokotasunean. Hausnartzeko gaiak aukeratu ohi ditut, oso unibertsalak: denbora, bizitzaren norabidea...

### **Zer da publikoari gehien gustatzen zaiona?**

Gauza ezinezkoak egitea. Ni beti saiatu izan naiz istorioak kontatzen magiaren bitartez, baina jendeak bilatzen duena ezinezkoa den truko bat ikustea da, eta ez jakitea nola egin den.

### **Zein da magiaren publikoa?**

Ez dago publiko mota zehatzik, lau edo sei urtetik aurrera edonork gozatu dezake magia ikuskizun batekin. Nik gehienetan familien aurrean egiten ditut saioak, urtebetetzeetan eta antzeko jaietan. Antzerkietan, adibidez, jende helduagoa egoten da, sarrera ordaindu behar delako eta horretarako gaitasun ekonomikoa dutelako. Niri helduen aurrean antzeztea gustatzen zait, haurrek lehenago galtzen dutelako arreta.

### **Zelako eskaintza dago Bilbon magia zale-tuentzakot?**

Pixkanaka gero eta eskaintza zabalagoa dago, baina gustatuko litzaidakeena baino askoz gutxiago. Magia beste arte diziplina bat da, eta gainerako guztietatik edaten du, esaterako, musikatik, antzerkitik... Horregatik uste dut eskaintza handitu daitekeela.

### **Nolako harremana dauka magia beste arte diziplinekin?**

Mago bakoitzak ematen dio nahi duen lotura. Nik, adibidez, garrantzia ematen diot antzerkiari. Urtebetez arte dramatikoak ikasi dit eta horrek ahotsaren proiektzioa zaintzen laguntzen dit, ondo eszenaratzeko, presentzia eszenikoa mantentzen... Musikaren aukeraketari ere arreta handia

jartzen diot. Bestalde, gidoia oso garrantzitsua da ikuskizun batean. Nire ustez inprobisatu behar da, bai, baina beti gidoi batekin.

### **Magiaz bizi daiteke?**

Bai. Imanol Ituiño, Bilboko mago oso ezaguna, eta Bizkaiko Magoen Elkareko beste kideren bat magiaz bizi dira. Oso zaila da horretara heltzea, eskaria urtarokoa delako. Maiatzetik aurrera eta udan zehar lan handia dago, baina neguan apenas. Ahalegin handia eskatzen du, zure burua ezagutzera eman, kontaktuak egin...

### **Gustatuko litzazuke horretara iristea?**

Bai, hori da nire ametsa. Beti esan dut hiru bide daudela bizitzan: jarraitu *behar* duzuna, jarraitu *nahi* duzuna eta *amesten* duzuna. Orain arte erresidentzietan egin dut lan, gizarte- eta osasun-arloko ikasketak egin ditudalako. Hori da *gustatzen* zaidana, baina pixkanaka *amesten* dudana bidera eman nahi dut jautzia.

### **Nondik edaten duzu inspirazio bila?**

Zinema ezinbesteko iturria da niretzat. Gero, poesia, musika (Bach, Beethoven...), margolaritza (Dali, Picasso...) etab. Arte asko kontsumitzen dut eta hori magiara eramaten saiatzen naiz.

### **Zertan ari zara orain?**

Bilboko Udaleko youtuberra naiz. Hilean behin bideo bat egiten dugu gazteei hirian dauden jardueren berri emateko. Horrez gain, magia ikasteko klase partikularrak ematen ditut eta noizbehinka ikuskizun bat egiteko deitzen naute. Orain burubelari ari naiz ikasten, eta orduak eta orduak ematen ditut txanponekin, kartekin eta sokekin praktikatzeko.

### **Zein da euskararen presentzia magiaren munduan?**

Bilbon nahiko txikia. Udalak kontratatzen nauenean saioak euskaraz emateko eskatzen didate, baina gainerako kasuetan oso gutxi. Bilbotik kanpo, lekuaren araberrakoa da. Oraindik ere lan handia falta da euskara eta magia lotzeko.

**“Arte asko kontsumitzen dut eta hori magiara eramaten saiatzen naiz”**

TRIPONTZIA

## Sari nagusia Deustun banatu da

Urtarrilaren 20an egin zuten Gure Eskuren urteroko Tripontzia sariaren zozketa. Zerbaki irabazlea, 08121a, Deustun saldu da. 'Lapurdi' izeneko serieak 60.000 euro banatu ditu. Gainera, zenbakiaren gainerako serieak dituztenek 2.000euroko sariak eramango dituzte. Tripontziaren bigarren zenbaki sariduna Azpeitian saldu da, eta 1.500 euro jasoko ditu 24628 zenbakiaren serie bakoitzak. Hirugarrena, 1.000 eurokoa, Aieten egokitu da, 17541 zenbakiarekin. Sariak aurkezteko prentsaurreko nazionala emango dute, Deustun. Iaz Ibarrekolandan banatu zen Tripontziaren bigarren saria, 1.500 eurokoa, alegia. Behean, iazko sarituen argazkia.

INAUTERIAK

## Inauteriak ate joka

Otsaila dugu egutegiaren beste aldean, eta berarekin batera inauteri garaia ekarriko du. Bilbon otsailaren 20an emango diete hasiera, ostegunez. Asteburu luze eta ekintzaz betekoaren ostean, hilaren 25ean emango diete amaiera, sardinaren erreketarekin. Arrangotin ere asteburu berean egingo dute jaia. Deustun, ohitura den bezala, Bilbori aurrea hartu eta aurreko asteburuan ospatuko dituzte inauteriak. Otsailaren 15 eta 16an aterako dituzte mozorroak Doneperiagara. Ibarrekolanda, Erribera eta San Ignazion, aldiz, otsaileko azken egunean aterako dira mozzoratuta, 29an, alegia.

PABILIOI 6

## P6-ko lokalak berriztuko dituzte

Akordioa sinatu dute Bilboko Udalak eta Pabilioi 6-k. Honen arabera, pabilioien jabetza eta mantentzearen ardura Udalarena izango da, baina Pabilioi 6 izango da gunearen kudeaketa eramango duena, orain arte bezala. Horrela, Asier Abaunza Obrak, Zerbitsuak eta Espazio Publikoko zinegotziak agindu du bi urtetan 2 milioi euro inbertituko dituztela lokala berrizten, "Bilbok luzerako antzoki on bat izan dezan". Uda ostean hasiko omen dira lanak eta horri esker ez dute antzokiaren lana eten beharko.



## Otsailaren 29an Berbaizuren jardunaldiaren bigarren saioa

Otsailaren 29an *Berbaizu 2020-2030* jardunaldiaren itzulerako partida jokatu dugu Bidarten. Pasa den zenbakian abisatu genizuen: Berbaizu Euskara Elkarteak luze gabe emango du *Berbaizu 2020-2030* jardunaldiaren bigarren zatiaren berri. Hitzordua dugu jada: otsailaren 29an 09:30ean Bidarten. Zita garrantzitsua izango da bi arrazoiengatik: batetik, elkarteak hamarkada honetarako plan estrategikoa aurkeztuko duelako eta, bestetik, Berbaizuki-

deok elkartean norabidea erabakiko dugulako. Iraileko jardunaldian ideia mamitsuak atera ziren eta lehenastunak ezartzeko aukera izango dugu otsailaren azken egunean. Anbizio handiko helburuak proposatuko ditugu eta euskaltzale guztien ekarpena ezinbestekoa izango da 2030ean Deustualde euskaldunagoa nahi badugu. Gainera, 2020 urte bisustua den aldetik, 366. eguna euskaraz gurekin bizitzeko gonbita ere bada. Beraz, ez galdu!



Urtea: 1955

Txema Luzuriaga


## *Mercedes kontzesionarioa*

50eko hamarkadako argazki honetan Mercedes kontzesionarioa ageri zaigu, gasolindegia alboan. Bere kotxe-modeloek zubia gurutzatzen genuen oinezkoen lilura pizten zuten. Irudian zubia itxita ikusten dugu, azpitik itsasontzi bat igaro delarik. Ezkerraldean XVIII. mendeko Goossens jauregia daukagu, egun Botikazar institutuaren parte dena.

Segi Deustualdean euskara sustatuz. Eskerrik asko denoi!

Iragar zaitez  
**Prest!**-en  
tel. 94 447 10 42  
bilbokoaldizkariak@gmail.com

△ 7 △ L △  
TATTOO STUDIO  
  
Errondoko kalea z/g. Ibarrekolanda  
tlf. 640 903 311  
instagrama: @azala.tattoo

**YVES ROCHER**  
FRANCE  
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765  
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48  
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303 

**Optica**  
*Avenda*  
Agirre Lehendakaria, 147 Tfonoa:  
SAN INAZIO 94 475 11 24

**ATXURI**  
**TABERNA**  
Luzarra 1  
Deustu  
946 75 40 17

**BREST**  
kafetegia  
Blas de Otero, 5  
Tfnoa: 94 447 95 43

**Alonso Pertsianak**  
Plaza Celestino M<sup>a</sup> del Arenal, 12  
48015 Deustu-Bilbao  
Tel.: 94 600 14 24  
alonsoper@euskalnet.net

  
Urrunago zertarako?  
Deustuko Liburudenda  
San Pedro Plaza 4


*Yoki Berrri*  
Taberna  
Good vives!  
Luzarra, 6 - Deustu  
@tokiberritaberna

1924tik Deustun  
*Tintorería*  
**La Flor**  
Julio Urquijo 3 - Deustu  
94 475 18 29  
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu

**artez**  
euskara zerbitzua  
**Probatu herrizki.eus**  
ANDROID APP Google play  
Apple App Store  
ERRODOKO BARRUTIA GOBIERNO VASCO BFA DFB

Ramon y Cajal, 8 behea  
48014 Deustu  
tel. 94 475 22 33  
matxintxu@aeknet.net  
**Matxintxu**  
aek ■ euskaltea  
Matrikula zaitez! 

**Nailan**  
Parquetak - Bamizak  
Morgan kalea z/g  
48014 Deustu - Bilbo  
tfno: 94 475 67 84  
nailanparquet@euskalnet.net

 **RONDOKO**  
HORTZ KLINIKA  
*Iratxe Jimenez Bobadilla*  
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855  
Odontologia orokorra eta prebentiboa  
Ume eta helduak  
Tratamendu estetikoak eta garbiketa  
Peridontzia eta protesi kengarriak  
Ortodontzia  
PADI  
OSAKIDETZA  
Errondoko z/g, SAN INAZIO  
**94 475 5932**  
E.P.S. 425/97

Bitxidenda  
**Sabin**  
Erlojudenda  
Rafaela de Ibarra, 6  
Tfnoa 94 475 63 16

**KM PERSIANAS**  
**CERRAMIENTOS**  
*Deitu eta Ikusi!!*  
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK  
Araneko, 28 - 48014 Bilbao  
TEL. 94.447.70.32  
E-MAIL: persianaskm@persianaskm.com  
www.persianaskm.com


**BIDAURRE**  
elekttrizitate eta margo-lanak  
2daurrelan@gmail.com  
669 42 76 23  


## Hasi zara urte berriko asmoak betetzen?



**Begoña  
Kastaños**

Gutxi gorabehera, bai, %60an edo. Kirola egitea eta osasuntsu jatea izan dira nire urte berriko asmoak.



**Jon Karla  
Deustu**

Aurten ez dut urte berriko asmorik izan, hori gaingitu dut jada!



**Jon  
Bilbo**

Pixkanaka betetzen hasi naiz aurtengo jomugak. Erretzeari uzten hasi naiz, eta berriro olatuak hartzen hasteko asmoa daukat.



**Oihane  
Gatika**

Ez dut urte berriko asmorik izaten. Momentuaren arabera finkatzen ditut helburuak.



**Felix  
Deustu**

Oraindik ez naiz hasi, bajaran nagoelako. Nire aurtengo helburua joan den urtea hobetzea edo gutxienez berdintzea da.



**Maria  
Indautxu**

Ez dut urte berriko asmorik izaten. Zerbait nahi dudanean unean bertan hartzen dut helburu.



# harkua bete berpa

>> BERTSOLARITZA

## AFERAK, HIRUGARRENEZ

*Jada lau hilabete eta lau saio igaro dira aurtengo Aferak bertso-dinamikaren hirugarren edizioa martxan jarri genuenetik. Barre-algaraz, poztasunez eta bertsoz betetako saioak izan dira, ezpainak zerbeza bitsez bustitzen ditugun bitartean entzutekoak.*

**Testua eta argazkiak:** Elorri Bertso Eskola eta Deustuko Herriko Taberna

Aurten, gainera, bertso eskolaka kantatzeko aukera eman diegu bertsolariei, hala nola, Albe bertso eskolako kideei edota Lili bertso eskolako kideei eta, nola ez, gure buruari; Elorriko kideok ere aritu baikara mikrofonotik kantari.

Bertsolariak ere, hala esan izan digutelako saio-osteko afarietan, gustura egon dira, eta ondo pasatu dute, beraz, nola ez gara gustura geratuko gure lana egin ostean hau entzuten badugu.

Hala ibiltzen gara gu ere: pozik eta gogotsu Deustuko Herriko Tabernako mahaian bueltan ariketak prestatzen eta ahalik eta jolas onenak antolatzen saioetarako, hurrengo emanaldian bertsolariek zer ekarriko duten zain. Normalean, ideiaz beteta joaten gara prestatetara, baina gertatu zaigu ideia horiek garatzeko zailtasunak izatea. Gainera,

saio bakoitzak gai propio bat dauka, eta taberna gaira egokitzea gustatzen zaigu, hau da, egun horri dagozkion apaingarriak jartzen ditugu atzealdean. Orduan, noizbait gertatu egin zaigu hori apaintzeko ideiarik ez edukitzea, eta, azkenengo momentura arte, estu eta larri ibiltzea. Denbora eskatzen duen lana da, baina antolatzaileok beste zeregin batzuetan jardun arren, beti ateratzen dugu tartetxoa Aferak aurrera atera dadin, eta dena behar bezala edo, gutxienez, ahal bezala irten dadin; ez zaigu ilusiorik falta!

Orokorrean harrera ona eduki dute saioek, eta jendetsuak izan dira, baina data zehatz batzuetan ez da horrenbeste bete Herriko Tabernako atzeko aldea, batik bat, Oktoberfest dela-eta edo abenduko azterketak eta ospakizun desberdinak direla-eta. Dena dela, dau-

den entzuleak egonda, oso giro beroa sortzen da eta gustura eta etxean lez kantatzeko moduko plaza bat sortzen da denon artean.

Laster agur esan beharko diogu aurtengo edizioari. Otsailaren 6an edukiko dugu azkenengo zita. Ahalik eta giro goxoenean agurtu nahi dugu hirugarren denboraldia, eta horretarako Asier Alcedo, Ander Ucelay, Josune Aramendi eta Aissa Intxausti etorriko dira gurea. Datorren urtean ere bueltatuko gara bertsoz gai-

nezka eta irrikaz, badaukagu-eta zer kontatu!

### Otsaileko bigarren larunbatean ere kantari

Dena ez da ostegun iluntzetako kontua, izan ere, Otsailaren 8an berriro ere batuko gara Deustuko Herriko Tabernan, baina oraingoan zu egotea nahi dugu; zuri bidaltzen dizugu gonbidapena! Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio eta Miren Artetxe ibiliko dira kontu-kantari oholtza gainean, eta seguru bazkaloste zoragarria eskainiko digutela bertso eta koplara artean!







# HATOR EZAGUTZERA!

## *Deustu ikastetxea*

*Haur eta Lehen Hezkuntza*



Blas de Otero, 66 Deustu 48014 Bilbao



0- 2 urte : 94 475 29 44

2-12 urte : 94 475 49 55

*D eredua*

*Euskal eskola publikoa zure auzoan*

**Matrikula epea: urtarrilaren 27tik otsailaren 7ra**

**i  
N  
T  
X  
i  
X  
U**

**MATRIKULA / MATRÍCULA**

Urtarrilaren 27tik, otsailaren 7ra

Del 27 de enero al 7 de febrero

**ATEAK ZABALIK:** Otsailak 1, larunbata (11:00 – 13:00)

BATZAR INFORMATIBOA (11:00) BISITA GIDATUA (12:00)

**PUERTAS ABIERTAS:** sábado 1 de febrero (11:00 – 13:00)

REUNIÓN INFORMATIVA (11:00) VISITA GUIADA (12:00)



**HURBIL  
ZAITEZ!**

**¡CONÓCENOS!**



Tel. 944759180

[zuzendaritza@intxixuikastola.net](mailto:zuzendaritza@intxixuikastola.net)

[www.intxixu-ikastola.net](http://www.intxixu-ikastola.net)

Kanariar Uharteak, 71 – 48015

**ikastola**



>> JAI HERRIKOIAK

## AGATE DEUNARI KANTUZ

*Seinalatutako data da Agate Deunaren bezpera Euskal Herrian, baita gurean ere. Makilekin lagunduta, Deustu eta Ibarrekolandako auzokideak kantatzera aterako dira otsailaren 4an. Eskoletako umeak ere jantzi tradizionalekin aterako dira “oles egitera”.*

Testua: PREST!

“Santa Ageda bezpera dugu, Euskal Herriko eguna, etxe guztiak kantuz pozteko, aukeratu duguna”, dio koplaz zaharrak. Euskal Herriko neguko jaietako bat dugu Agate Deuna, Santa Agata edota Dona Agata, Agata Cataniakoaren omenez ospatzen dena. Hainbat teoria daude jai honen jatorriaren inguruan.

Batzuek diote marinelek ekarri zutela Agate Deuna siziliarra go-raipatzeko ohitura Euskal Herriara. Catanian jaio omen zen Agata, 230. urtean. Tradizioak dioenez, Erromak Sizilian zuen Quinciano

governadore paganoak berarekin ezkondu nahi zuen, baina Agata girstino sutua zen, eta uko egin zion. Gobernadoreak, orduan, neskatoa kartzelatzeko agindu zuen. Bularrak moztu eta hil arte torturatu zuten 21 urte zituela. 251ko otsailaren 5ean hil zen, eta handik gerora Eliza Katolikoak santa izendatu zuen.

Beste batzuek, aldiz, jai hau askoz zaharragoa dela diote, kristautasuna zabaldu aurretik ere ospatzen omen baitzen. Aditu batzuen iritziz, Agataren inguruko festek zerikusi handia dute

inauteriekin, inauste edo kima-tze garaiko errituekin. Neguko solstizioaren ondorengo jaietako bat izan liteke eta otsailean oraindik lo dagoen lurra iratzartzeko erritu zaharrek loturik legoke. Izan ere, Santa Agata askotan abere gisa irudikatzen da euskal usadioan, gehienetan ahuntz edo katu itxurarekin.

Kristautasuna Euskal Herrira zabaldu zenean, beste askorekin batera Dona Agata eguna ekarri zuen berekin. Elizak aurreko erritu eta ospakizunak bereganatu eta itxura berri bat eman zien, eta nahasketa horretatik ei dator egungo ospakizuna.

### Agate Deuna gurean

Euskal Herrian (eta beste hainbat tokitan ere) bezperan kantatzen zaio Agateri. Jantzi tradizionalak soinean eta makilak eskuan, herri eta auzoetako kaleak zeharkatzen dituzte urtero hainbat lagunek, askotan diru edo janari eske, ohiturak agindu legez.



Deustuko Batzokiko kideak Agate Deunari abesten.

# harkua bete herba

Deustun ere otsailaren 4an kantatzera ateratzeko ohitura dago. Urtero legez, Berbaizuko Kantugintza Taldeak eta Bihotz Alai Folklore Taldeak elkarrekin egingo dute. 19:00ean elkartuko dira Done Petri plazan, txistulari eta gaiteroez lagunduta auzoan zehar kantuan aritzeko.

Deustuko Batzokiko kideak ere atera ohi dira Agate Deuna omentzera eta inoiz ibilbideak elkartu eta batera abestu dute. Aurten, baina, nork bere bidea egingo du. Urtero legez, Deustuko Batzokitik 20-30 bat lagun abiatuko dira arratsaldeko 19:30ean, 21:00ak bitarte. Bi aste lehenago hasi zituzten entseguak, ahotsak eta makilak berotzeko. 1978an Deustuko Batzokia ireki zutenetik mantendu dute tradizioa.

Deustuko Jai Batzordea ere, aspaldi hasi zen Agate Deunaren bezperako jai antolatzen, baina datak kontuan hartuta (inauteriak eta jaiak ate joka ditugu) bi urtetan ezin izan zuten prestatu. 2006an Bihotz Alai eta Berbaizuko hainbat kidek ospakizuna berreskuratzea erabaki zuten, gaur arte. Aurtengoa, beraz, 15. edizioa izango da, eta "aurrera jarraitzeko prest" daude. "Inda-

Agate Deuna Ibarrekolandan, 70eko hamarkadan. Txema Juanesek lagatako argazkia.



rra mantentzen da", azaldu digu Bihotz Alaiako Jabi Ortegak, eta



OTSAILAREN 4AN,  
asteartearekin,  
19:00etan  
San Pedro plazatik

Aintzalduta daigun  
Agate Deuna  
bihar daba  
Deun Agate...  
EUIP



kantatzera "oso gustura" ateratzen direla otsaileko egun hotz honetan.

Ibarrekolandako Etorkizuna Eskaut Taldeak ere urteak daramatza Santa Agedari abesten. Haur, gazte eta helduak elkartzen dira eta auzoko hainbat txoko kantuz eta makilakadaz girotzen dituzte. Aurten 19:30ean elkartuko dira auzoko parrokiaren atarian.

Bestalde, auzoko eskola eta ikastetxe gehienetako haurrak ere etxez-etxe oles egitera aterako dira, asko zapia zabalik, diru eta janari eskean.



## UBÚ, FINANTZEN ERREGE

urtarrilaren 31tik  
martxoaren 1era  
[www.pabellon6.org](http://www.pabellon6.org)

**P6**  
PABELLON 6  
ARTE ERREKONKUA



# PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

## ARRAUTZA HABIA



*Madariaga etorbideko 31. zenbakira gerturatu gara urtarrilean pintxo berezi bila. Bertan urteak daramatzan Oskarbi tabernarekin egin dugu topo, baina itxura zeharo berriarekin. Barra bete-beteta aurkitu dugu, eta bertako pintxo berezienaren berri eman digute tabernari eta sukaldariek.*

**Zailtasun maila:** Ertaina

**Egiteko denbora:** 10 minutu

**Prezioa:** 2 euro

**Berezitasuna:** ohatze itxura dauka.

### Kontu batzuk

Abenduaren 17an ireki zituen atea Oskarbi tabernak itxuraberrituta. Aurreko jabeak erretiroa hartu eta alaba nagusiak erabaki zuen lokalaren lekukoa hartzea. Goitik behera zaharberritu du, bere ukitu pertsonala emanez eta gazte- eta moderno-ukituarekin. Pintxo betetako barra erakargarria izaten dute prest egunero, kafearekin batera tabernako espezialitate nagusia. Horretan ez dute aldaketarik egin, ez eta publikoari ematen dioten arretan ere.

Oskarbi tabernako Xabi, Irantzu eta Juan Luis



*Kafeak eta pintxoak*

# OSKARBI

*Cafes y pintos*

### OSKARBI TABERNA

Madariaga etorbidea 31

688726788

@oskarbitaberna

Egunero 07.30 – 23.00



## barkua bete herba

### Zelan egin?

Lehendabizi patatak zuritu, garbitu eta fin-fin moztu. Urre-kolorea hartu arte frijitu eta gazitu. Arrautzak galdarazteko ur irakian bota, gatz eta ozpin pixka batekin. Prest daude-

nean ura kendu eta patata-habiaren gainean jarri. Jarraian urdaiazpikoa plantxan egin, kurruskari geratu arte. Arrautzen gainean ipini eta porru ernamuina gehitu.

### OSAGAIK

*Patatak  
Galdarraztatutako  
arrautzak  
Urdaiazpiko kurruskaria  
Porru ernamuina*



**Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!**

Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...



Ramon y Cajal, 24  
DEUSTUA

Tfnoa: 94 447 45 00



San Pedro plazako  
frontoiaren atzean



**ZURE PINTXO  
ONENAK GUREKIN  
KONPARTITZEKO**

**Presta?**

**AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN**



# kultur txontx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa



## JON MIRENA SAN PEDRO

*Inakurle irregularra*

### ALTXOR UHARTEA

R.L. Stevensonen 1883ko harribitxia, Maria Garikanok 125 urte geroago euskaratua. Literatura unibertsalaren ezinbesteko perla. Toñatik Izaro ta Ogoño arteko ortzemu-gari beha, Doneperiatatik metroz gure txangoaren norakoa erabaki ezinik, edo Zorrotzaurren aspaldi gabeko sirgariei so hausnarrean gaudelarik, eskuetan laztantzeko moduko idazkera zehatzeko liburu mamitsua. Edozein bidaiatarako egokia.

Umeei gertatu lez, bulegoetan aurrefabrikatutako heroi akatsgabeak baino, erakargarriagoak zaizkigulako film eta liburuetako hezur-haragizko legez kanpokoak, bizitzaren ertz labainkorretan olgetan beren on-gaitz oro garraiatuz diharduten maltzurak. Oraindik badugulako sextantea, itsasorratza, haize-arrosarik... non kausitu, bitakorkaieran zer izkiriatu. Oraindik badirelako longitude-latituderik izaterik ez duten muino, badia, mendilerro, hondartza, itsas-txokorik... Aldi baterako ainguralekuak. Eta John Silverren xarma. Gu ere ez garelako zintzo-zintzoak.

Mapekiko axolarik galdu ez badugu, izan gaitezen bihoztoi Jim Hawkins gaztea, Ben Gunn eta enparau bukaneroen gibeletik abiatzeko. Inoiz portura itzuliko garen auke-raz beste egiteko gertu.

Bai zuek, bai ni, Bristolgo Katalexu tabernan hildakoaren kutxan dantzan, edota Muino Beltz Itsasarteko Admiral Benbow ostatuan, Zakur Beltz eta Pew itsuaren peskizan, Billy Bonesengandik gertuegi aukeran, tra-la-rai, botila bete ronka! Ondo bidegin, eta bizitutakoa ondo atxiki zuen akorduan, egundo ez baita zuek nahi legetxe errepikatuko.

### ERANTZUNA ARGI DAGO

*Doinua: Habanera*



## EGOITZ OZAMIZ URIARTE

*Elorri bertso-eskolako kidea*

Eginbehar bakoitzean  
behin eta berriz bueltaka  
denbora eskasa izanik  
agortzen da pixkanaka  
gauza oro betiere  
hartu behar da banaka  
gora begiratu eta  
hor Damoklesen ezpata  
emozio ezberdinak  
elkar artean lehiaka  
izerdia aurpegitik  
etengabeki tantaka  
mugaren usaina gertu  
heltzeaz daukagu data  
ta burutik ezin kendu  
erlojuaren tik-taka

Prozesu denak funtsean  
Sorrera ta bukaera  
Hortan ez da ezberdina  
jasotako egoera  
kasu honetan nola ez  
egin behar saiakera  
hasi gaitezen orduan  
tira dezagun aurrera  
badago edozer gauza  
gaur aurkezteko aukera  
bapateko irabazi  
epe luzeko galera  
erantzuna argi dago  
bota aurretik galdera  
gauzak ondo egitea  
ezinbestean hobe da



## Gure ikasleen ahotan

**“Eredu Dualak zure burua lan munduan sartzeko aukera eskaintzen dizu”**

*Aitor Asensio Bermejo 23 urteko barakaldarra Ingeniaritza Mekatronikoa ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean eta 3. mailan dago.*

**Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak?, baduzu hobby edo zaletasunik?**

Batxilergoa amaitu nuenean, argi eta garbi neukan ingeniaritza ikasi nahi nuela. Horregatik ingeniaritza mekanikoa hasi nuen EHU-UPVn, Bilbon. Asko ikasi nuen esperientzia horretatik, baina ikasketak ez ziren ondo joan eta gradua utzi nuen. Muskizen Mekatronikako goi mailako modulua hasi nuen ondoren. Kirola egitea asko gustatzen zait, batez ere futbola. Txikitatik oso kirolaria izan naiz. Kirolaz gain, asko gustatzen zait telesailak ikustea lagunekin.

**Zergatik aukeratu zenuen Ingeniaritza Mekatronikako gradua Mondragon Unibertsitatean?**

Mekatronika ikasten nengoela, lagun batek MUN hasi zen Ingeniaritza Mekatronikako gradua ikasten eta bere esperientzia kontatu zidanean interesa sortu zidan. Gainera, nire tutoreak informazio asko eman zidan graduari buruz eta animatu ninduen unibertsitatera bueltatzera. Horretaz gain, nire arrebak Mondragon Unibertsitatean ikasi zuen eta oso pozik ibili zen.

**Nolakoa izan da orain arteko esperientzia?**

Oso pozik nago graduarekin. Lehenengo urtean egoitzan bizi nintzen eta bertako lagunekin pisu batean bizi naiz orain. Esperientzia honek eman didan onena lagunak dira. Pozik nago unibertsitateak erabiltzen duen metodologiarekin. Gehien gustatzen zaidana proiektu garaia da. Kurtsoan ikasitakoa erabiltzen dugu taldetan proiektu bat egiteko. Garai horretan, libre gara guk nahi dugun metodologia erabiltzeko. EHUrekin konpa-



ratuz, uste dut hobe dela irakasleekin dugun harremana. Irakasleak gehiago arduratzen dira harreman hori mantentzen.

**Lanean ari zara ikasten duzun bitartean, DUAL eredu. Zer lan mota egiten duzun?**

Oñatin ari naiz lanean, ULMA Construction enpresan, ikasten dudana bitartean. Joan den martxoan hasi nintzen eta lehen egunetik beste lankide bezala hartu naute. Denborarekin gero eta ardura gehiago ematen dizkirate eta orain proiektu garrantzitsu batzuetan lanean ari naiz, beste ingeniariet bezala. Hasi nintzenetik gehien egin dudana diseinu mekanikoa eta dokumentazioa izan dira.

**Zer nolako ekarpena egiten dizu eredu DUALak?**

Dualak zure burua lan munduan sartzeko aukera eskaintzen dizu. Nire esperientzia orain arte ezin hobe izan da. Klasean ikasten dudana aparte gauza berri asko ikasten ari naiz. Adibidez, bezeroekin eta hornitzaileekin harremanetan jartzean unibertsitateko jardunak ematen ez dizun heldutasuna lortzen duzu.

**Etorkizunari begira, zeintzuk dira zure asmoak?**

Oraindik kurtso hau eta hurrengoa daukat gradua amaitzeko. Nire asmoa da, haiek hala nahi baldin badute eta nirekin pozik baldin badaude, lanean jarraitzea. Orain masterra ere eskaintzen du MUK, duala ere, eta pentsatzen ari naiz masterrarekin jarraitzea Ingeniaritza Mekatronikako gradua amaitu eta gero. Oraindik denbora aukat erabaki bat hartzeko.

2020ko OTSAILA MARTXOA APIRILA MAIATZA

# KUSI ETA KASI

• FAMILIAN EUSKARAZ GOZATU •

Tailerretan parte hartzeko derrigorrezko da aurretik izena ematea [www.ikusietaikasi.eus](http://www.ikusietaikasi.eus) gunean aurkituko duzuen izena-emateko fitxa betez.

IZENA EMATEKO EPEA:  
URTARRILAREN 13TIK 26RA

LAGUN  
ARTEAN

8-10  
urte

4-8  
urte



euskaltzaleen  
topagunea

B

Bilbao

# Bilbon euskaraz

B

Bilbao



[www.bilbaeuskaraz.eus](http://www.bilbaeuskaraz.eus)